



Iturria: *Olerki berrizte*, Emeterio Arrese. Itzaropena, 1952.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArreseEBerrizte.htm>

## OLERKI BERRIZTE

Emeterio Arrese

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetgo Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Irakurle: Nere aiskide batzuek zugana bultzaka nakarte. Egikizun bat beraiek nai bezin azkar nik ezin bete, alegiya. Nere olerki zarretafik berezitako mordoska bat argilaratzeari zegokion lana egin bear izan det.

Alperkerizko lastai bigunean etzinda ote negon edo zenbaitek ala uste izan arren, aldapa gogor zalletik ibili naiz. Gauz bat bi bider esan besterik ezpalitz, nekez ari bearrik ez nuen izango, errexean jardun eta nere arazoari laister azken emango nion.

Aundi da baña olakotan gerta zaidana: garai batean idatzitako neurtizkiek argira jaso ta andik urte batzuetara akatzez itxusituak ikusten ditut. Ori dala-ta beren zimurrik agerienak igurtzi, aldakera bat edo beste egin, ustez beintzat egoki xamar ezarri ta ona emen, liburu txiki ontan, oraingo nere langitza.

Bertan dauden olerkiei pixkana pixkana, txolartietan, zuk, irakurle, begaldi bat ematen baiezu, gozaro ni.



## Ama!

Zorigaitzaren asgabe latza  
leguntzen dute malkoak  
lore zimel bat udan bezela  
egun-sentiko lanbroak.  
Argatik orain negar ta negar  
ase nai luke kolkoak  
t'argatik ere len baño geigo  
maitatzen ditut bertsoak.  
Auek gotiñar antzera zaizkit,  
susnoz iñar kidekoak,  
mara-mara gaur nere barmendik  
ixuritako tantoak.

«¡Ama...» Itz au dan goraltzigarri,  
ain xamur, aratz, kutuna!  
Ama da leirik onenak beti  
ernarazten dizkiguna,  
Jainko'ren urren ama guk ordu  
zalletan aipa deguna,  
biotzetiko egimen eder  
guziak berez dituna.  
Ama zan gaxo negon aldiro  
gau t'egun zaintzen niñuna,  
ta amarik gabe larri, etsi-zail,  
nekezko bizitz astuna...

Etorkizun on bat neukalarik  
iritxi nayaz obea  
euskal-erritik urrundu nintzan  
amets-irudiz betea.  
Une txar batez arturik ala  
bear ez nuen bidea,  
atsegiñ ordeaz arkitu ditut  
arazo ta naigabea.

Beñ eta berriz, geitu ta geitu,  
ixuri bezait negarra,  
beriot aunitz gogoratuta  
il zaidan ama laztana,  
irten-goizean egunargitzez  
ixil-ixilik nigana  
erdu ta musu betazaletan  
biguinki eman zidana.

Etzait aztuko gero negarrez  
nik ez ikusteagatik  
luzaro nola egon zan bere  
gela-txokoan bakarrik.  
Maiz burura zait gaxoak neri  
azkenekoz muin-egiñik  
esandako au: «Seme, bazoaz  
amaren aldamenetik...!  
Betiko gabaz nere bizitza  
estaliko da gaurtandik.

Itz oiek entzun t'alaz ere ni,  
eskergabeko semea,  
urrundu nitzan... Arrezkero beltz,  
illuna nere bidea.  
¿Zerk bururazi, zer aizek Euskal-  
-erritik aldegitza?...  
Leze bat emen, utzirik ango  
babes ain goxo maitea!

Egunero itxas-ertzean nabil  
ipar-alderuntz begira;  
alditxar guzik erabat nigan  
gañezka bildu baitira.  
Luzapenez miñ... Alik lasterren  
itzul nai det sorterrira,  
ama xar maite gaxoa nere  
galdezka il zaidan tokira.

\* \* \*



Jauna'ren deyzaz igo zera-ta  
 orain an oztin garbian  
 zure anima, ta korputza lur  
 gurutze baten azpian.  
 Illotzik zauden ama laztana,  
 sarri nik obitegian  
 nere miñ eta penak esango  
 dizkizut ixil arian  
 illak bakarrik entzuten duten  
 izkera maitagarrian.

*Habana'n 1903'garren urtean*

## Txantxangorriya

Osto geyenak ezetasunik  
 gabe zimil daudenean  
 ta batez ere mitxirrika illen  
 antzera darortzenean  
 begiyak xabal-xabalik adar  
 billuzi baten gañean  
 egoten zera, txantxangorriya,  
 negarrez udazkenean.

Ain bakar, txukun eta geldiro  
 jardun oi zera kantuan  
 non beti ernai zu'ri begira  
 egon arren bat orduan  
 atsekabe ta miñeriturik  
 kantari zauden orduan  
 ari zeranik iñoiz ez dizu  
 antzik emango mokuan.

Papar txiki ta gorrixa bor-boil  
 ler egiteko zorian  
 jardungai oso kupigarriaz  
 beterik daukazunean  
 ainbeste negar, eresi xamur,  
 axanpa guzik batean  
 ez dakit nola kabitzen diran  
 zure kolko pollitean.

Aldizka *furruxi*, ega motxean,  
 uste gutxinez aurrera  
 azaldurik an laister-bidetik  
 malda-gora goazela  
 gidari zintzo gertu bat izan  
 nai bazenduke bezela  
 gure antziñan zabilta beti  
 txoriño maiten-maitena.



Maite zaitugun ezkeron nunbait  
 ordañak aurrez ematen  
 ote zabiltzan esan liteke  
 negua sartu baño len.  
 Ez bildur izan! Elurte gaizto  
 aundienak izan arren  
 gure ondoan arkituko da  
 zuretzako ainbat lurmen.

¡O, txori gaxo, sotil, polita  
 biotz erien laguna,  
 txirulioka negar ugari  
 eztiro dariyozuna:  
 Zu zera beti, txantxangorriya,  
 zu zera txantxan-iztuna  
 alakoxe gauz maitagarri bat  
 erakusten diguzuna!

## Nere basetxean

*Urtero aldi bat*

Lo gozatsua egin ondoren  
 jeiki naiz goiznabarrean  
 ego-aldetik enadatxo bi  
 etorri zaizkidanean.  
 Aroiz erdu-ta or beren kabi  
 xarraren aldamenean  
 abegi on bat eskatzen daude  
 txioka tellatupean.

Geznari alai zintzo datozkit  
 udaberri-egunean,  
 lagun oberik eziñ arkitu  
 nere aterpe xarrean;  
 enada polit oiekin batez  
 Saratxo-mendi-gañean  
 urte-giro au guztiz eder zait  
 basoko nere pakean.

Mendiyan inoiz aldarte txarrik  
 ez det izan, lasai nago,  
 aldi bat ezik bizitz osua  
 nai nuke bertan irago.  
 Txindiz aberats ezpanaiz ere  
 pozez nor aberatsago?;  
 atsegiñaren ezti jatorra  
 an bean ez, emen dago.

Elkarren etsai bizi dira-ta  
 gauz onik ez unitarrak.  
 Mendiyan beso zabalik daude  
 lizar, aritz, orrikarak...  
 Zuaitzak laztan, usai garbidun  
 eskeintza lili nabarrak  
 eta goizero txioka nere  
 tellatupeko maiztarrak.



## Donostira oñez

Txikitan nik ain gogoz izanik  
 erri-buru bat ikusi naya  
 etzait aztuko lenengo aldiz  
 Donostira jun nitzan garaya.  
 Tolosa'tikan erdu zan mutil  
 koxkor batentzat ¡zer ikusgaya!  
 itxaso zabal, «Zurriol» aundi,  
 «Alderdi-eder», «Bulebar», kaya...  
 Gizon bat «Bretxa»-n diadarbizi  
*¡sacamantecas! ¡barbarasaña!*  
 zapi teinkatu aundi batera  
 zuzenduz txorrotx bere agaya.  
 Ondoren beste atseinbide bat;  
 «Plaza Berri»-ko feri alaya.  
 ¡Ango zernai gauz, ozte-billera,  
 jardunbizi ta txistor-usaya!  
 Txanpon biz puskat erosi nuen,  
 goxatu koipez aosapaya;  
 oso ta garbi berarizko izan  
 zitzaidan Santo Tomas'ko jaya!

## Areso'n

*Abesgai*

Mandiyo aundi batean  
 artaburuak aletzen  
 pozik iñardun gera bart  
 amasei neska ta mutil.  
 Egun-txintaz gero plazan  
 oñariñ eta krixkitin  
 guziok irradabizi  
 sugar aundi batean jiran;  
 ta garra bera-re dantzan  
 ote dabillen irudi,  
 txinpart-ale bakoitzaren  
 txastada krixkitin gorri.  
 Soñu-jotzalleak ere  
 gero ta zaletsuago  
 berebiziko ekitez  
 soñu alaya jo ta jo.  
 Gure pozaren emana!  
 Yoran-ordu zoragarri!  
 Amestegi'ko alaba  
 gurekin emen dantzari!

*1891'garren urtean*



## Artzayaren abestia

Oraindik ez nau menpean atzi  
ezin bat iritxi nayak,  
iñoiz ez bere listorrez josi  
aundikerizko etsayak;  
oniritzi ta gogoz arturik  
Izadiaren emaya,  
naiko atsegin bertan du noski  
zintzo bizi dan artzayak.

Ardizai emen bakar bizi naiz  
nere txabola xarrean,  
bakarti, baña zorontsu goiko  
saroi eder ixillean;  
pozaren bidez irrintz-oyuka  
nabillen aldi berean  
mendi-kolkoak erantzuten dit  
ots alai bete-bertan.

Goizean goiz nik begiratzen det  
urrutiko sortaldera,  
ta illun-aurrean ziara dakust  
eguzkiaren sarrera;  
begi ta gogo zabal-zabalik  
lilluratu bat bezela  
egon ondoren jolas-oyuka  
zaletsu nabil ostera.

Artalde gizen oso bikaña,  
esne ta baba txit nara,  
aldi soil gorri zekenik emen  
ez det izan egundaño.  
Egarri banaiz iturbegia  
poil-poilka beti maitaro,  
otorduetan janari ona,  
gauean berriz lo ta lo...

Ta lo gozo au izan oi arren  
iraute luzea duna  
begiak ustez itxi orduko  
sortzen da berriz eguna.  
Gentzaro maite zoragarria,  
atsedenaldi biguna...!  
Lengoz gañera loak darakar  
artzayaren osasuna.

Goiznabarrean era xamurrez  
otoi ezitstu garbia  
egin ondoren idikitzen det  
bordagaraiko esia;  
larrean pozez yauzika dabil  
artalde bikain txuria,  
ta nere barren bildotx antzera  
biotz esnatuberria.

Irrintz-egiñaz goretsirik ain  
izate garbi zintzoa  
bizi-maill ontan osatu zaizkit  
soiñ-indar eta gogoa.  
Menditar txiro bat naizela ta  
basati kaiku loloa?...  
¡Ujui!, gizarro, igana ziaik  
nere pozaren zantzoa!

Oraingo zenbait sasi-jakintsu,  
gaizto guzien antzera  
itxu daude-ta sarri litezke  
amildu negar-lezera.  
Pozez ain jori dalako berriz  
artzayaren izakera  
nik emen ainbat atsegiñ ez du  
an bean iñork ¡bai zera!



Erpiñen'etik, ezpada beintzat  
egoaldi oso illuna  
arrano batek lezaken eraz  
ikusi oi det urruna:  
itxaso zabal, ibargi naro,  
baserri jator, txukuna...  
Ta ikuste alai orren gañez nik  
txabola xar untzaduna.

Urrin gozoa banatzen dute  
lardi baso ta zelayak,  
ipar ariñez maita nau emen  
arratsaldeko garayak.  
Loreak bere likura damait,  
itzala pago zardayak,  
ta iñori baño lenago musu  
eguzki goiztar alayak.

Goiratu nedin kolko ta zangar  
sendoak dauzkat aldakai,  
laister-bidetik igo ta goren  
irrintzika nabil noiznai.  
Il-obi zarrez betea dagon  
mendi-mendiyan ardizai  
Yainko'ri esker ondo bizi naiz.  
Nere biotzak beti jai!

## Lore-jai

Nere gelako leyatillan gaur  
argi-jai dute liliak  
ta jai eder au osatzearren  
txuriz ta gorritz jantziak  
irabioka or dabiltz beste  
ega-lili dantxariak.

Lili-gañean erle bat orain  
ego txabalez jarririk  
eztigai ona miazten dago  
aren barne xamurretik;  
iñork al daki maita badira  
berengaiz ezagaturik?

Gora ta bera jai adirazle  
lilien aizpa sorgiñak  
une bat ere gelditzerik ez  
beren jolas egariñak.  
Begiko zaizkit txiribili ain  
margoztuen jira-birak.

Pinpirin-panpox irradariak,  
biotz-biotzez ain bero  
jai ontan zuen etorrera nik  
abestu detan ezkerro  
nere gelako leyatillara  
erdu zaitezte goizero!





## Ego-aizea

Garai batzutan ibili arren  
bazter guziak astindu bear  
egoak inoiz ots aundi gabe  
ordain baretsu, leuna dakar.

Baso-txaretan arratsean lo  
zegon aldiko ixiltasuna  
utzirik orain egunargitzez  
arinki dabil aize biguna.

Ozkarbi dago... Mendi-tontorrek  
aldakai sorgin batez bezela  
ba-dirudite len baño urrego,  
gugandik oso bertan daudela.

Udazkenean egoak bere  
aizegiñez txit jator, nabari,  
eskeintzen digu belar, garo ta  
sagar elduen usai ugari.

Gogo txepeldu ta musinzentzat  
eragin ona ego-aizeak.  
Iritzi ontan sendo nago ni;  
eztabaidaka jardun besteak...!

Olerkari ta nere antzeko  
txoriburuen aizea dala?...  
Zorionean berauren bidez  
baldin banaiz gaur txori xamarra!

## Kulitxu seaskan

Mamiren-mami,  
jainko txiki zu,  
amaren argi, zoruna,  
betaxaletan  
giro bezaizu  
nere abesti kutuna.  
kun-kun, kun-kun...

Aldamenean  
nazu biyotxa,  
negarrik ez ba, ixo, ixo,  
amatxok gero  
biguin koxua  
emango ta egin llo-llo.  
kun-kun, kun-kun...

Mumua dator...,  
ara...! Joan ortik!  
utikan!, ez urbil geigo!,  
nere txikiya  
pollita da-ta  
ez du negarrik egingo.  
kun-kun, kun-kun...

\* \* \*

Loak artu du...  
Irripar emez  
piztu zaio arpegiya.  
aingeruekin  
jolasten dari  
maitiño zoragarriya.



Eragin laztan  
 eztitsu batez  
 biyok amets egin zagun;  
 aurtxoak lotan  
 eta nik esna...  
 Orren goxo...! kun-kun, kun-kun...

## Bai, ongi dasak

*Lagun zar bati*

Egi dek emen daudela Tengo  
 baso gereitsu ta baserriak,  
 emen ere ibai aundi, urlo ta  
 erreka bitu marmalariak.  
 Egi, or zeudek txikitan gure  
 jolasketako bazter maitiak:  
 udare-baratz, igari-leku,  
 txori-muño ta kilker-tokiak.  
 Nun dira baña ordungo beste  
 gauz eta jolas ain bereziak?...  
 Leor zegotzik, eziñago latz,  
 «San Blas»-ko bustin-txulo guziak,  
 ta iñolaz ere zartzez guk ezin  
 berriztu lengo ekiñaldiak.  
 Oroimenean bustin-txulo ta  
 zankiñezkako makil txikiok.



## Gaur ire jaya

*Kortejarena'tar Eujenio'ren urtegunean*

Jai au goretsi-zale nauk eta  
 nere zaletasun oni  
 itz-lerro batzuk nai nizkioket  
 ire omenaz erantsi.  
 Gogo bizkor, burua motel,  
 naya bakarrik eraingi,  
 bertso txikiok azal apañik  
 etzeukatek, baña mami  
 goxua beintzak; biotzetiko  
 leyak ziñez goxarazi.  
 Onela ba, nik ire opaz gaur  
 itz oiek emen ezarri:  
 Agur, Eujenio, i bezelako  
 gizon jator goreskarri  
 banako zenbait izan litezkek  
 oberik iñor ez noski.  
 Buruz azkarra, biotzez ona,  
 aiskide leyala beti,  
 ontasunaren aldegai denak  
 iregan oso ta bizi.  
 Zorion-agur! Eunki betean  
 urtero gaurko jai aundi!

## Aratziñe bere buruz

Jainko'tri zor bizitza.  
 Berak itz eder au: Zadi!  
 ta bat-batean orrela  
 nere sortze, nere izaki...  
 Egunez ni ezikuskor,  
 gauean oztar-irudi,  
 gaxoen begirale ta  
 olerkarien goyargi.  
 Aratziñe naiz, mendi-mendiko  
 ixillaren ama txuri.

Izarrak klikk-egin t'egin  
 beren zabalde garbia  
 bitxitu-garayan oi det  
 maizenik agerraldia.  
 Neugaz zillargitzen dira  
 ibai, soro, larredia...,  
 ta Auñamendi-ko basauntza  
 berez orrein izutia  
 yauzika urbil zait, atsegingarri  
 baitzaio nere argia.

Maitale izan da iñork maita  
 ez ditun gaxoak nere  
 maitenak dira; laguntzik  
 ez diet uka beiñ-ere.  
 Ames-txar-irabi edo  
 kezkarik sortzen bazaie  
 ega bizkor ariñean  
 mugonez erdu natzaie  
 Varazo-naspil nekegarriak  
 urrutira iges, aldarte.



Askotan bidegin arren  
 elur-izara-gañean  
 nere oñatzik ez dago  
 ibili naizen bidean.  
 Euriyak ez nau bustitzen,  
 ez ere sakon beltzean  
 iresten arrats illunak,  
 dirdira bai-det soñean.  
 Egunez lore, zitori naiz, ta  
 Apezeme arratsean.

## Goi-aldi

Nere buru au argitu nayaz  
 Uzturre-mendi-gañean  
 bekokiari azka egon naiz  
 gutxinaz ordubetea.  
 Euri-lanbroa gero susna-ta  
 jeisten asi naizenean  
 nor agertuko ta... zu, Zorentxu,  
 bat-batez nere aurrean.

Dirdira bizi zure begiak  
 zer eskeñi nai didate,  
 amoriyozko argitasuna?...  
 Ezpai-aldi onek beste  
 bat ondorean: Zorentxu, zure  
 begi urdiñ oien mende  
 biotzean nik ikara goxo  
 nasi bat ala zer ote...?

Nere galdera mamitsu bati  
 erantzun diozu benaz,  
 erantzun alai danik ederren  
 egi-egizko baietzaz.  
 Urtez umotu xamar naiz, bañan  
 gazte gordiñ izakeraz,  
 urteen gañez kantari nabil;  
 goibelik ez, baikor beraz.

Zorentxu, ez da oraingoxea  
 olerki onek dun gaya,  
 len ere berdín ziñaldu nizun  
 zukanako nere naya.  
 Elkar-izketaz goretsi degu  
 gaurkoz egin degun jaya;  
 laister... itz batez belauniko guk  
 alkarrí ziñaltz-emaya...



## Neskatx-billera batean

Mendi-mendiko urjaiotz edo  
iturri bizi gardena  
bezin garbiya zuen irripar  
eta zuen mintzoera.  
Zeruko lili, aingeru bitxi,  
zuek emengo billera  
argiz betetzen dezue, baiki,  
ta usai txit emez gañera.  
Egi au bide danez nik orain  
azken-itx oiek onela:  
Gutxienaz eun urteraño  
luzapen gaidun bizmena  
zorionaren euzkiz yantzia  
Jainkoak demaizutela!

## Tori

Zortziko arin bat Pello'k  
eskatu dit gaur goizean.  
Ariña nai? Ona emen  
lastozko xare batean:

Itz-lerro bat egin det,  
orain bigarrena,  
beste onekin iru,  
lana det zallena;  
bosteraño iritxi naiz,  
emen seigarrena,  
zazpi..., ondoren gaya  
zortziko batena.



## Aizak

*Buenos Aires'en arki dan lagun bati*

Umore ona egiz darion  
azkenengo ire kartan  
zirikoi xamar galdetzen diak  
zer bizitza daramatan.  
Galdera oni erantzun argi  
zuzen bat nik ezin eman,  
irudi nasiz bete baitzaidak  
nere buru au Habana'n.

Mitxirrika bat ega ta ega  
argi baten inguruan  
ari dan antzez ni ere noiznai  
grina zoro setatsuan  
ametsen egoz ega-iraulka  
larri nebillek munduan.  
Ikusten danez pinpilinpauxa  
geyegi nere buruan.

Errimin-edo biziro maizki  
aruntz naraman indarrak  
piztu erazten zizkiat lengo  
garai ta oitura zarrak.  
Entzumenean zeuzkat oraindik  
biyok eta Labaur'tarrak  
beñola Jose'n upeltegian  
egin genitun algarak.

Zergatik onuntz etorri naizen...?  
Mundu auxe borobilla  
ote dan jakin t'arindu nayaz  
nere buruko naspilla.  
Ta i... bazekiat joan eitzala  
—azterle bizkor, abilla—  
Iparragirre'k or utzitako  
saku-diruaren billa.

*Habana'tik 1907'garren urtean*

## Abiñe ta Xumelar

**Xum.—**

Abiñe maitagarria,  
garbi-solleko txingia;  
entzun ezazu maiteki nere  
biotz-eskaria,  
gogo ta xedez garbia,  
lei batek ernarazia;  
bakar gaxo bat naizen onetzaz  
kupitu zaitia.

**Ab.—**

Itz eder oien eztiya  
legun, oso bereziya,  
zure jardungai ereskitsuak  
zoratu nau iya;  
sinistatzen det egiya  
izango dala guziya,  
begi zoliak ezin ukatu  
biotz maitatiya.

**Xum.—**

Zuk ere begiak zoli,  
uso batek beziñ argi,  
zu zeran ainbat ederrik ez det  
egundaño ikusi:  
adimen ain iratzarri,  
begizkuna zabal-garbi,  
t'ayera otxan. Zu ziñake, bai,  
nere poz-eguzki.

**Ab.—**

Ontan ez beintzat kezkarik,  
ez det izan burausterik,  
itxusi ala ederra naizen  
ez dakit oraindik;



baña esango dizut nik  
ez dala beste biotzik  
nereak ainbat Xumelar'ena  
maita lezakenik.

**Xum.—**

Goibel ondorean urdin,  
zorigaitz urren atsegin;  
Abiñe, orain arindu zaizkit  
lengo pena ta min...  
Zure gogozko izan nedin  
otoi beroz nik alegin.  
¡Bai zoriona bizi bagina  
biyok alkarrekin!

**Ab.—**

Xumelar mutil alaya,  
mendiburu-ko artzaya,  
garbiro, ziñez, itzegiteko  
eldu da garaya;  
berdin danez gure naya  
zu, bai, nere senargaya.  
Biyontzat laister bat izan bedi  
otorduko maya.

**Xum.—**

Abiñe, nere aingeru,  
nere izar, nere zeru,  
zureganako maitetasunez  
biotz eta buru,  
nere lei on, pentsamentu,  
adore bizi ta zentzu...,  
almen guziak erabat zure  
opaz nere barru!

## Basatiaren oyua

Auñamendi-ko erpiñ-inguru  
pagoz ta aritzez betea  
nere biztoki. Ni naiz emengo  
jaun bakar eta jabea.  
Txakur kementsu begi-zoli bat  
arrotzei ekin zalea  
da nere lagun itzar, zaindari,  
aizkora berriz legea.

Emen jayoa naiz. Nik  
emen osabide,  
gogo ta soin basaundi  
onen izakide.  
Neronen arauz, beste  
iñorenik gabe  
emen bizi naiz eta  
emen ilko ere.

Eguna egun, illunabarra  
lotartzeko egiña  
garaiz bildu ta loak besotan  
goizarte nauka etziña.  
Ibai-aldean geyenak loger,  
goxagirotu eziña.  
Noski; zaiñ erre gaizto baitira...  
Bakoitzak berezko griña!

Goizen, egunargitzez,  
irrintzi ta oyu,  
nere diadar-otsa  
mendiyak maite du.  
Emen ez da beñere,  
iñoiz ez ¡ujuju!...,  
ekaitzaren indarra  
besterik garaitu.



Mendigaiñ ontan egundaño ez  
 an bean ainbat azari,  
 ez ere ziraun, arrubiyo ta  
 bestalako gauz itxusi...  
 Neguburuak naiz-eta berdin  
 elurrez garbiro jantzi,  
 elur au bean loi biurtzen da  
 goi ontan berriz iturri.

Uritarra sartuko  
 balitz mugaz gora,  
 txakur salatiya ta  
 ni gauden basora,  
 tximista bezin azkar  
 an luke lepora  
 jaso ta eskuan zorrotz  
 daukantan aizkora.

Sakostan gezur, itxillu t'abar  
 dabillen etsai-taldea  
 iñoiz ere ezin izan liteke  
 basaundi onen jabea.  
 Ango gizatxar asaldariak  
 jakin bezate nerea  
 izango dala, beste iñoren ez,  
 baseder ixil maitea!

## Gau eder

Jan-edan utsez bizi nai ez-ta  
 beste yoranez jardun geranak  
 gau ozkarbian zuzenki goiranz  
 erabil gaitu biotz-egadak.

Illargibete ta izar ugariz  
 yantzi da goiko zabaldegia;  
 arrats gozatsu, bikain, berezi,  
 otoi-gau eder, gau gelgarria!

Itxaso bare, sotillak emen  
 aldi berdiñaz logura xamar  
 bere bitsaren lerro zuriya  
 ondar-gañera polliki dakar.

Kezka larri bat arindu nayaz  
 begiratzen det urrun..., an gora!  
 t'andik izumai atsegiñaren  
 arnasa dator nere kolkora.

Gaberdiyaren ixil-uneko  
 lillurapean jorren gentzaro!;  
 lurtarrik ez dan ames-tokira  
 aldatu banitz bezela nago.

Nere barruan ez digart orain  
 zorigaitzaren ale bat ere;  
 azi txarrak on biurtu zaizkit,  
 samiñak ezti, arantzak lore.

Jan-edan utsez bizi nai ez-ta  
 beste yoranez jardun geranak  
 gau ozkarbian zuzenki goirantz  
 erabil gaitu biotz-egadak.





## Uzturre

Uzturre-mendiyaren  
gallurrak tontor bi,  
bakoitza eziñago  
eder, ikusgarri.  
Negu beltzak askotan  
jotzen du suminki,  
alperrik baña jazar  
gaizto sumin ori:  
Naiz tximistaz argitu  
naiz elurrez yantzi  
Uzturre'k oyar alai  
kementsua beti.  
Arkaitz biyurtutako  
zantzo bat dirudi.

## Ulía

Donosti eta bere inguruko  
soro, baratz, lilitegi...,  
saill eder naro guzien gañez  
yayoén Ulía-mendi.

Eguzkiaren dizdiz alayak  
sarrítan musu damaio,  
eta muiñ aratz onegaz indar  
bero bat osatu zaio.

Udazkenaren arnas epela  
leunki datorren garaiz  
ango aitz biren gañean pozik  
amaika bider egon naiz.

Ta zenbat aldiz arkitu ere  
iturri baten onduan  
ta iturri onen aldameneko  
piñu-baso gereitsuan!

Lertxundi polit, xakon, biguna,  
udaran izuma-toki,  
bazterrik maiten gelgarriena  
lertxundi orixe noski.

Ardi batzuek abaroan lo,  
ni berriz oroitz-ausnarka,  
zorigaitzaren egazti beltzik  
iñoiz etzegon eraka.

Ulía-mendi, atsedén-eske  
natorkizunon laguna;  
¡bai gozoa zuk ixiltasunez  
damaidazun erantzuna!

Jainkoz bakarrik, Jainkoz emengo  
ixil-abots eztiduna!



## Euskal Erria

Ara zein alai dagon  
gure sorterrria  
aritz, pago ta lizar  
bikañez jantzia.  
Alde bateko mugar  
itsas ugaria,  
arkaitza jo ta astintzen  
bere apar txuria;  
saroi oparotsuak  
kerizpe geldia,  
baserritxoak nunai  
ta nunai pakia;  
mendi-gain bakoitzean  
txabola txikia,  
artalde bat ondoren,  
gero... gurutzia!

## Urgull'en egotalditxo bat

Itxaso-mugar suturik ango  
oz-alde nabar guziya  
geldi-geldiro jeisten ari da  
eguzki-litsa gorriya.

Ixildu dira erabat emen  
kantari zeuden txoriak,  
alatsu bean erriko ardail  
urduri-ots nabasiak.

Kayo batzuek egada nare  
aizea bigunki joaz  
«Zurriola»-tik beren aterpe  
artzuetara dijoaz.

Izar urdin bat piztu da goyen  
arratsaren aintzindari...  
Berandu da-ta luzaro ezin  
izan nik emengo aldi.

Jeisten abitu naizen garayan  
ipar-aize bigunaren  
marmari geltsu alakoxe bat  
erestiñoka zebillen.

Gozatsua zait oxkar-girodun  
illunabarreko itzala.  
Arratsak gero lo nare baten  
unkia eman deiala!



## Zoratzalle izuna

*Erderazko irakurgai batetik ataitxo bi euskeraztuak*

### I

Egodun aurrak *kax-kax* jo du nere etxeko atea  
ta eragin goxoz dardarazi etxe-barrunbea.

Banoa, maite, sarri or nazu, ez inora joan,  
aspaldi ontan luzetsita ni zure zai negoan.

Atoz; gertakari au susmatu nuen, t'arrezkero  
etxea lorez apaintzen ibili naiz egunero.

Ta beti emen arki dezazun atsedean guziya  
luma ta maindire garbiz jantzi det oe txuriya.

Sartu ba; ongi etorri, ego dezun aur maitea,  
etxe ontako zorion gaurtandik izan zaitea.

### II

Lau aldiz entzun det zure griña dun ots isitua,  
lau aldiz entzun ikaraz zure gezi-ren txistua.

Lau bider zauritu nazu: lendabizi kopetian,  
gero begitan, aboan berriz urrengo aldian;

ta nere miñez kupitu gabe, orain, azkenean,  
oñazerik gogorren sasta diazu biotzean.

Adur samiña! Nere biotz au ain gogor josirik  
gaxo dago-ta... ene zorigaitz, bizi naiz oraindik!

\* \* \*

Giltzez itxi det, itxi betikoz emengo sarrera;  
ego ta gezi dun ori bijoa urrun aldera!

## Ke-belarra

Arazo garaiz  
errezale naiz,  
pipa da nere laguna,  
ke-belar oso  
samin ta gozo  
nasien ontzi kutuna.

Pipa laburra,  
nere sudurra  
usai eginkor luzea;  
onen azpiyan  
dagon aldiyan  
nik pozor bete-betea.

Nayen dan eraz  
maita det beraz  
axon darion belarra;  
onen bidez ain  
barru det orain  
idarokizko txingarra.

Toxatik artu,  
gañezka sartu  
kider-buru xakonean;  
ke-belar ori  
urriñez jori  
laister da sudur-mintzean.

Pipa txuriya  
kirten ausiya,  
zorungai eder osoa;  
aur-zar batentzat,  
ziñez neretzat  
edoski maite gozoa.



Ezpain-ertzean  
 pipa jartzean,  
 agur! kez karen goibela;  
 burauste zakar  
 guzik bai azkar  
 banatu kea bezela!

Uste bat oker  
 irten da loger  
 kardabaz baldin banago  
 pipari esker  
 ez du gau-lisker  
 orrek irauten luzaro.

Olerkarien  
 amets-aldien  
 goraltzigarri da nunbait;  
 argatik nere  
 olerki-xeme  
 apal au berdin sortu zait.

Arazo garaiz  
 erre-zale naiz,  
 pipa da nere laguna,  
 ke-belar oso  
 samin ta gozo  
 nasien ontzi kutuna.

## Itxasoaren azpegik

### I

Eguzkiz bete balitzaio-re  
 une gezala  
 garden, jori ta sotillago ez  
 itxas-zabala;  
 ba-dirudi gaur maitaro bere  
 barrengo itzala  
 dirdir oztiñez ikusteraño  
 argitu dala.

Alatz urdiña!... Zer jaikun emen,  
 zer-nungo zori?

Itxasoaren ederraldia  
 ederren, baiki.

Uin ereskitsu t'apar emeñoz  
 jolas-irabi  
 laztan zuri bat ematen dio  
 Donostiyari.

Arraitz-aldeko bazter-txulotan  
 urlo gelgarri,  
 geyenaz ere noizik-bein palaxt  
 otxanez ari.

Orain on, bare; laister agiyan  
 ekaitzu, nasi...

¡Nork esan iñoiz aldakor danik  
 urdin txau ori?

### II

Orduan gogor izugarritzko  
 indarrez azun,  
 tximist, aize ta kemen guziak  
 arturik lagun  
 odoi-mordoen errai beltzetik  
 an dator illun,  
 an dator ganka orro ta txistu,  
 durun ta durun.



Arkaitza jo ta lertzen danean,  
 ostera bere  
 seta makurrez gero ta geigo  
 atzetik beste  
 ur-mendi-sallak tontorka datoz  
 lerkoi, aserre,  
 leordegira zurrunbilloka  
 irauli-zale.

## Arraunketa

Itxasparren'go  
 inguruetan  
 berebiziko gizadi  
 alaya dabil  
 dei, oyu t'abar  
 jai baten goraltzigarri.

Arraunketa da... Mutil bikañak  
 zarrena beren lemazai  
 arturik laister abitutzeko  
 tankeraz daude txit ernai.

...Treñeru biyak jrraul irten dira,  
 irten oldar bat-batean,  
 txanpaz jo ta jo apar-erauntsi  
 arraunkada bakoitzean.

Egatu nairik aurreko ertza  
 biziro gallen jasoaz  
 balizak dauden zabaldegira  
 zuzenki t'arin dijoaz.

Urruti orain... Baretu dira  
 pitin bat gure dardarak;  
 laister baña guk berriro lengo  
 poz eta biotz-ikarak.

Onuntz bira ta zuzen, ederki,  
 leyaz gero ta areago  
 egiñalean kementsu datoz  
 zein baño zein azkarrago.

Lurriñ-ontziak *turu* ta txistu,  
 lei-otsar guzik batera;  
 treñeru biyak berdintsu igaro  
 Gaztelupeko sarrera.



Ekin, mutillak! Ori det, ori!,  
jo grñaz, jo mugaldera!  
Bertan zerate, arraunkada bi...  
Yaupa! Bejondeizutela!

## Seaskatik il-obira

Amets igeskor zoroak dira  
mundu'ko pozkai geyenak,  
txingarrak baño iraupen geigo  
ez du-ta gure bizmenak.

Atsegiñaren ibargi-zale  
abitu nintzan goizean  
nere gogoak poz-irudi bat  
ipiñi zidan aurrean;

ustez eroso, bañan ikuskin  
arenganako bidea  
aintzindu gabe goazenentzat  
sasi ta zuloz betea.

Giza geyenak dirutu bear,  
gose asekaitz, lertzori;  
etsai gogorra iñolaz ere  
eziñ ase makur ori.

Ta... zeñek erru...? Alperrik dabil  
gure gogotzar alena,  
dirukoikeriz erne dan pozak  
ondoren beti galena.

Bear genduken bezela zuzen  
jardungo baldin bagiña  
ez litzake gaur izango noski  
bizitz au orren samiña.

Zertarako da, zergatik maita  
ondore txar dun irrirtsa?  
Egizko pozen iturburuan  
edan nai ezik gabiltza.



Elkarren aurka buru-belarri  
gabiltzanok ain setatsu  
zer ote geran galdezka nago:  
zeken, dollor, ala kaiku?

Geiegizko dan diru-gosea,  
goseki beraren kaltez;  
zillarra ibaika jardetsi nai-ta  
zorunik inorentzat ez

\* \* \*

Amets igeskor zoroak dira  
mundu'ko pozkai geyenak,  
txingarrak baño iraupen geigo  
ez du-ta gure bizmenak.

## Gogotxindor

Ene txoriño maitea,  
orren ixilik zer dezu?,  
zer naigabe latz-illunak  
ikaraz ipiñi zaitu?...  
Txindor gaxoa!, ez beintzat  
zure kabitik urrundu,  
zapelatz gaiztoen poza  
ori egingo bazendu.

Zaude, maite, zaude bertan,  
ez izan toki-aldakor,  
nere zartzaroan ez det  
zu beste lagunik inor.  
Berrero jardun zaitte, ba,  
len bezin alai t'adikor,  
yoranez abesten asi,  
Gogotxindor, Gogotxindor!



## Iñar mingotzak

Irudimena len bizkor neukan,  
argi ta zabal gogoia;  
orain ezer ez onik buruan,  
baizik... alperrikakoa!  
errauts, aize ta geldoa.

Oraindio ni zergatik nagon  
ain bakar mutilzarturik?:  
txoriyak iñoiz ez du egiten  
elur-gañean kabirik,  
orlegi batean baizik.

Erle zuri ta leyari batek  
ikutu zidan barrena.  
Enel, bai zorrotz erle txuri ark  
ixilpean zekarrena!  
listor beltzaren eztena.

Aldegin bear ez nun garayan  
utzirik babes-tokia  
zorigaiztoan urundu nintzan...  
Angoxe nere aldia  
samin, latz, izugarria.

Ama gaxoa nere galdezka;  
erbestean urruti ni...  
Aren begiak itxi dira ta  
nereak malkoz estali;  
negar darie lerzori.

Argiro neuzkan poz-bide guzik  
batezbat illundu dira;  
itxuen eraz argatik nabil  
zeru alderuntz begira,  
ama dagoan tokira.

## Zer nai nukan

Mendi-mendiyan etxe koxkor bat,  
lizar batzuek aurrean,  
baratze txiki bat inguruko  
xakonik babesenean.  
Bertan iturri gerezi-ondo  
zardai baten kerizpean,  
eta basauntzen edan-tokia  
aitzalde-txulo batean.  
Ixil osoa... Iñoren zantzo  
t'aztarnik ez bein-ere an;  
ametsak lagun, amets egin, bai,  
amets!... mendi-magalean.  
Ori nai nuke, geigo ezer ez  
bizi naizen bitartean.  
Gero... ezurak arri biurtu  
Uzturre-mendi-gañean  
ta «ni» naizen au betiro bizi  
goiko zabal urdiñean.





## Laztan bat

*Entzute aundiko eresgille Mokorod'tar Eduardo'ri  
bere gorantz-a-egunean*

Negu beltzean egoten oi dan  
bezela txantxangorriya  
otzikaraz ta mutu zegoken  
nere barrengo txoriya.  
Gaur bat-batean txospertu zaidak,  
gaur egun zoragarriya,  
lengo ixillaren orde z nik orain  
abestaldi bereziya.

Goibel-nagirik inork ez emen,  
baizik zorion-uztargi  
ta uztargipean gure biotzak  
atseginaren urbizi.  
Erreka denak mingain zetortzik,  
bizkor, eretsu ta garbi.  
Ta gu guziok zorionezko  
ibayan emen igari.

Jai eder onek maitasunaren  
urrin gozoa zeriok  
t'aldi berean sortu zaizkiak  
bertsokume dantxariok.  
Ire omenaz abeskide gu,  
osaro alai guztiok;  
izan ere ik gure poza'ri  
pozik erantzun baitiok.

Nere buruzko epotx ariña  
itz-ale gozo mardulik  
eskeintzeko gai ezpada ere  
naimena bazerabilkik.

Bertsuak baño azkoz geiago  
laztan batek esango dik;  
laztan au, ba, guk, ziñalpidetzat  
beso ta gogo zabalik.



## Txanpañek eragin

*Apari batean*

Zartzaroz umetuen  
bular bixigarri,  
ardorik bikañen au  
edatez alai ni.  
Kezka-xomorro mintsu  
beltxik etzait ari,  
beltx erien orde z gaur  
berreun ipurtargi,  
oztiñeder-begi,  
ameskai ugari...  
Au bai dala pozaren  
goreneko zori!

### EGARBERA

Iñoiz ere ez det edan  
onenbeste txanpain  
oso bustiya nago  
ezur mami ta zain.  
Alaz ere pittin bat  
bederik lengoz gain  
zuen guzion opaz  
edango det orain.  
Txol garden ontan, ba, nik  
biotz, begi t'ezpain.

### BOR-BOR

Zirikatzalle onak  
zeraten ezker  
neurtitzez beste zerbait  
esan nairik nago.

Nai arren ezin baña.  
Izan ere ardo  
geiegi edan eta  
nere kankar bero,  
nere buru eltze au  
irakiten dago.  
Bertso-bide zallean  
zuzen xamar edo  
oker aundirik gabe  
jardun banaiz leno,  
bidegalduta orain  
ez dakit nora jo,  
itsumustuka nabil,  
t'azkenean... poto.

### BERRIZ?

Len poto bat egin det,  
orain zer, kaikuba?  
Aundi bat laister nere  
ganbaran sortuba  
eskeñiko dizuet  
ederki landuba;  
gai onez egiña ta  
begiz apainduba  
kaikurik aundiyena  
neronen buruba.

**Oarra.**— Neurtitz auek ez dira apalorduan egiñak, egunau-  
rrez baizik. Gertu egon bear; apari artan bertso-eske lagun  
batzuek ni zirikatzeke asmoa zutela banekin-da.



## Irurogei ta amasei urtez

Arpegi zital antzo,  
 igar, me, zurbilla,  
 ezur eta azal utsez  
 dirudi egiña.  
 Garai bateko nere  
 musu biribilla  
 norik egitetsi orain...?  
 Antzalda sorgiña!  
 kokotza nabari zait  
 sudurraren billa.

Egi orrek argiro  
 beste au ondoren:  
 nere bizitz-ibaya  
 itxasora laister.  
 Kezka txarrik ez baña;  
 noizik-bein pozaren  
 arrai pintarratu bat  
 yauzika baitager.  
 Ardo-ttantaz giro-ta  
 bixkortze ain eder.

Neurtitz-metagan txindor  
 —ene ames-txori—  
 papar arro abesten  
 ari zait biziki;  
 oraindik ezpaitiok  
 bertso-metaga'ri  
 biltze-lan ondoreko  
 potorik ipiñi.  
 Gogotxindor luzaro  
 jardun-zale izaki.

Agertuko balitzait  
 egazti beltzen bat

uxatuko nuke ta  
 urrundarazi ¡txak!  
 Jai det, jai aundia gaur  
 atsegiñ erabat,  
 urte asko izan arren  
 illunik ez beintzat.  
 Nere poza oyuka  
 erakutsi bezat.

*1945'gko Epailla'ren 3'an*



## Ario makurra

Mundu'tar denoi orrenbeste latz,  
ixtillu t'arazo larri  
zer dala bide sortzen zaizkigun  
ez degu nunbait ikasi.  
Egiñalean Ama-Gentza'ren  
deya karaxika dari,  
gu berriz gero t'areago zail,  
entzungor eta liskarti.

«Ni on, i gaizto», auzi orretan  
bata-bestearen griña  
biziro zorrotz darabilgu-ta  
azkenerako jakiña:  
aserre oyes, irain, gorroto,  
alkar ikusi eziña...  
Beste kukuak joko liguke  
gizonak gizon bagiña.

Aburu onik besterentzat ez,  
auzoko baratzen usai  
txarra, gurean susne gozoa;  
gezurra egiz jantzi nai.  
Esamesa ta zakarkeria  
eguneroko jardungai;  
oartzen ez guk lei ori danik  
geon buruaren etsai.

Añen-ots gure barren-bolu'ko  
matillak, eraingi latza,  
ario gaiztoz okertu zaigu  
zuzen-gorako ardatza.  
Maizter sumiña gure boluan,  
errotari txar, zikoitza,  
biotz-iriñik ez alegiya,  
baizik añoaren beltza.

Ilko geranik oartu nai ez,  
txarkeriz minduta gaude,  
burtzoro gera, lezetar, itxu,  
geon kaltez aiñ abere.  
Amaya laister!... Egi au maita  
bagendu, egiz aiskide,  
gure artean jazar-biderik  
egundaño ez litzake.

Aundizki eta txiker, guziok,  
begira zagun «gerora»,  
munduko bizitz ezberdiñaren  
mallarik ez dan altzora.  
Olerkari zar ospetsu batek  
esandako au gogora:  
Ibai, erreka, aundi ta txiki,  
ur guziok itxasora.

**Oarra.**— Ludi'ko gauzen aldiñak eriotzaz bukatzen diranez  
bakarrik dasat «gerora»-kiko itz ori.



## Oarketak

Beñ eta berriz bizi  
leikor esaten didate:  
«Gaizki abil, oso gaizki  
ain bakar. Ez al det gure  
billera goxoa maita,  
ez al gaituk adizkide?»  
Galdera oiek *jum...*, usai  
leunegia dariote.  
Erantzunik onen, beraz,  
zalantza-zinu orixe.

Gizon burutsu batek au  
esan zidan bein batean:  
«Aizazu, gezurrez ari  
geran aldi bakoitzean  
punpullu bat aterako  
balitzaigu kopetean,  
aitortzen det, asko xamar  
izain lirake nerean;  
baña... bai ugari, zenbat  
punpullu besterenean!».

Orrera gezur-punpulluz  
nabaro baldin bageunde  
talkalari amorratu  
zallak izango giñake,  
elkarren etsai jo ta jo  
atsedenik ez beñere.  
Baña naiz gezur-zulo izan,  
naiz bentsu, egi esale,  
mundu'tar geranok zenbat  
ixtillu ta buruauste...!

Bakartasunaren deyak  
mendirara pozik narama,

an arki baitet pakezko  
egoite bigun laztana,  
kezka ta miñ-erre guzik  
baretutzen dizkidana.  
Antxe lilluraz, gozaro...,  
an arin zait urte-zama.  
Biotz-biotzez maita det  
mendiko ixillaren ama!



## Igarondo

Zumardi Aundi, garai batean  
zure kerizpe laztana  
arturik emen egon oi nitzan  
ordu goxoei emana.  
Len bezelaxe zeundelakoan  
etorri naiz gaur zugana,  
ta, zer ikuspen begitara zait...?  
Ustegabeko antzalda!

Beste zuaitzak zure tokian,  
zumar-itzalik ez emen,  
iparrak bere soñu biguna  
ez dakit nun jo lezaken,  
zuaitz berritan inoiz ezpaitu  
eresgai onik arkitzen.  
Zu ziñan lenez lillura-baso  
bereziatan ederren!

Erreka polit marmariñe bat  
zijoakizun urbizi,  
ur jator, arraiz aberatsa ta  
ziaro garbiya beti.  
Ikuskai onik ez dezu orain,  
ez kerizpe t'ez ur garbi...  
Leno ziñana gogamenean  
erabil zaitut, Zumardi.

Banun andregai zoragarri bat,  
biyok maiz onera bide,  
iñun ez emen ainbat atsegin  
t'amets aiñ ederrik ere.  
Garai artako zumardian nik  
zenbat egotaldi maite...!  
Bai bizitz eder urte yoanak  
itzuli al balitezke!

*Tolosa'n 1946'garren urtean*

## Laister igana...

*Elosegitar Policarpo'ren eriotz-egunean*

Oroitzak aika naramate gaur,  
lenera-bide burumakur ni...  
Umetandiko lagunik onen,  
adizkide aiñ atsegingarri,  
ibai-ertze eta zumardiñoan  
nerekin batez pozik ibili  
t'amaika bider yolastu itzana;  
ibar ontatik i, maite ori,  
amaigabera joan aiz. Goiko  
urdiña nunbait ire Aberri.

Gorputza emen; luze ta zurbil  
aurrean akust oian etzana,  
ta ikuspen onek estura larriz  
lauso nere begietara.  
Otoitz-egiñez arindu bezait  
biotz gaxoan atzi zaidana.  
Agur, noizarte...? Loitan erortzen  
baldiñ ezpazait ames-iñara  
sinismen egoz yantzita pozik  
laster ni goirantz, laister igana...

*1948'gko Abendua'ren 3'an*



## Gainbera

Larogei urte gaur bete ditut,  
zartzez alderoka nabil,  
nai ta nai arren inolaz ere  
pausorik zuzendu ezin;  
ankak elbarri, burua motel,  
ario mindu, erretxin,  
urteen sitzaz joa nago-ta  
aje guziak nerekin.

Naspil-irudi gaiztoa dakust  
zartzaroko ikuspegian,  
burutik egin ala zer ote...?  
Ez nago nere onian.  
Gaztea nintzan garai artako  
bizitz-iturri garbian  
pittin bat edan al baneza gaur  
eritasunik ez nigan.

Basaburuan toki naro bat,  
bertan urjaiotz gardena,  
onen ixuriz maizki ase zan  
nere biotz egarbera.  
Ots-egiten dit, ots eme, kutun,  
lengoxe deya ber-bera.  
Malkarrik ez dun oroimen- bidez  
noán iturri maitera.

\* \* \*

Bizkorraldia!... Bat-batez orain  
urrats arin, gogo txosper,  
ain txingar sortu zaidan kemenak  
zut-zutik narabil, gallen.  
Gero amilduko banaiz ere  
txapalda loretsu baten  
babesa orain arki detanez  
nere barru jairik onen!

## Patxi Begibakarra ta Joxe Konkor

Patxi'k lengo batean  
Konkor ikusirik  
oso goiz, egun txintaz,  
irtetzen etxetik  
onela esan zion  
zirikatu nairik:  
«Aizak, Konkor, ez al dek  
nekean bildurrik?;  
kargapean asteko  
goiztxo dek oraindik».  
Ta Konkor'ek «bai noski,  
goiz izan bear dik,  
oso goiz, bada, Patxi,  
ez dekanean ik  
idiki ganbarako  
leyo bat besterik».



## Kattalin

Bide luzean aisa jasorik  
otar aundi bat —garau-saskiya—  
goizero dator neska gelgarri  
mirabe txairo, musu-gorriya.  
Oñ, gerri, kolko, lepo ta buru,  
erabat bikaiñ, ikusgarriya,  
edertasunez bera dan bezin  
ederrik iñor ez alegiya.

Al dakizute nungo ta zein dan  
orlako neska eder-gaindua?  
Ez al dezute iñoiz ikusi  
izar orretxen goi-leñurua?  
—Ezetz...? jakingo zendueke, bai,  
nor dan Kattalin Berrobikua  
zuek artu izan bazendue gaur  
neri eman didan masallekua.